


Helduen literatura

Poemas naufragos:
galegoz heldutako poemak
Askoren artean
Itzul.: Joseba Sarrionandia

Susa, 1991



Aberasteko modukoa

GALEGOTIK “gehiegi” itzultzen zen garaikoa da argitarapena: 1991ko maiatza. Zehatzago, maiatzaren 17a, Día das Letras Galegas. Urtero, data horrekin, ospatzen baita egile galegoen eguna, gogoratuz Rosalía de Castrok 1863koan argitaratu zuela *Cantares gallegos* famako hura. Zentra gaitezen gurean: *Poemas naufragos: galegoz heldutako poemak*. Susa literatura aldizkariaren 27. zenbakiaekin liburuki bat opari. Joseba Sarrionandiak kartzelan itzulitako poemak. Xosé Estévez eta Iñigo Aranbarrik jatorrizkoak aurkitu eta egile bakoitzaren fitxa txiki bat daraman edizioa prestatu. Eta Koldo Izagirreren sarrera. Elebiduna dena, galegoz eta euskaraz. Zortzi poeta, hamasei poema guztira.

Poetak dira: Manoel Antonio, Luis Amado Carballo, Alvaro Cunqueiro, Aquilino Iglesia Alvariño, Luis Pimentel, Luis Seoane, Celso Emilio Ferreiro, Manuel María. Salbuespen batzuekin (adibidez Cunqueiro, Literatura unibertsalean!), euskaraz hemen baino ez dauden poetak. Noski, denak gizonezkoak. Baina ez da antologia honek islatzen duen arazoa soilik. Urtero, maiatzaren 17ko datarekin, berritzen da polemika. Día das Letras Galegas, berrogeita hamar ediziotik gora, eta hiru dira emakume omen-duak: Rosalía de Castro bera, noski, itsusia litzateke bestela. Francisca Herrera Garrido, 1987an. Eta 2007an María Mariño –bide batez, Euskal Herriare-

kin harremana izan zuen idazlea—. Antologiako zortziak omendu dituzte jada (tira, Manuel María izango da 2016ko idazlea). Eta poesia galegoarekiko interesa agertu duten poeten –Gabriel Aresti, Koldo Izagirre, Itxaro Bordaren– sator-lana aitortuta –Iratxe Retolazaren terminoa erabiltzeagatik–, ez ote den lagina, kanona aberasteko ordua. Antologiako zortzi klasikoan aldean, ez ote luketen Luisa Villalta, Xela Arias gisako klasikoek beharko, bizirik dauden artean Chus Pato, are gazteagoa María do Cebreiro ez ote genituzkeen gehituko. Bestela antologia beharrezkoa baita, *Poeta katalan garaikideak* haren ildokoa. Kontua ez baita orain arte egindakoa deuseztatzea –egindako gutxia deuseztatzeke gaude ba–, ez bada errebisatu, zabaldu, hobetzea –eta ari gara, ez soilik genero, beste norabide batzuetan ere: Lois Pereiroren euskaratzea adibide–.

Inoiz irakurri izan dut, auskalo non, nori –ze autoritate moduri–, beste generoen aldean poesia garatua duen literatura –eta auskalo zer den hori– literatura azpigaratua dela –eta auskalo zer den hori ere–. Galegoena ikusita, gehiago iruditzen zait niri literatura baten bizitasunaren erakusgarri. Ekarpen berriekin etenik gabe aberasteko modukoa, beti ere. ■

Aritz Galarraga



B R A N K A

Kontxako olatuen gainean, Haize Orraztearen ondoan, bertako produktuengandako arreta bereziarekin

Urte osoan
menu berezia 36 €

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxa: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com